

Hezkidetzaren aldeko Irakasle Feministak (DoFemCo) estereotipo sexistarik gabeko hezkuntza bat berreskuratzeko beharratik jaiotzen da. DoFemCo-tik adin txikikoen garapen askearekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza eta hezkuntza defendatzen ditugu. Gure helburua haurtzarotik jarrera sexistak deuseztatzea, eta horrela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra ahalbidetzea da. Horretarako umeei hurrengo irakatsi behar diegu:

- Beraien ahalmenak sexuaren arabera mugatuta ez daudela.
- Jarrera toxikoak eta tratu txarren egoerak detektatzen eta ekiditzen harremanak edozein testuingurutan berdinetik berdinerara izan ahal izateko, bai adiskidetzan, bikotean, ikasketetan edo lanean,
- Emakumeak kontsumo, salmenta edo alokairu objektuak ez direla.

Espainar estatuan duela gutxi emandako gertaerek, “trans-haurtzaroa”-ren detekzioa defendatzen duten hezkuntza protokoloak matxan jarztea besteak beste, sen onera bueltatzeko beharra erakusten dute. Irakasle feminista gisa, ez dugu uste umeen identitateek beraien sexua definitzen dutenik; hezkidetzaren aldeko irakasle feminista gisa, helduen aurreiritziekin bat ez datozen haurren jarrerak dohainik estereotipatzeko ideietatik ihes egiten dugu.

Hezkidetzaren gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetuzko eta sexismorik gabeko hezkuntza baten bidez lortzeko beharretik jaiotzen da. Hori dela eta, hainbat erkidegotan burutzen ari diren hezkuntza protokoloen bidez irakasleak ume trans-ak “detektatzera” premiaztatzea ez beharrezkoa ez ezik, kaltegarria ere iruditzen zaigu; are gehiago, detekzio hori portaera sinple eta arruntetan oinarritzen denean, esate baterako, mutiko batek panpinekin jolastea gustokoa duenean edo neskato batek futboleko jolastu nahi duenean.

Halaber, detekzio hori adin txikikoen hormonazio eta kirurgia posible batzuetara bideratuta egotearekiko gure errefusa eta kezka erakusten ditugu. Izan ere, adin txikiko hauen hitza beraien transizioarekin hasteko kontuan izatea kezkarria iruditzen zaigu, hezitzaileak izanda, beraien bizitza osoan zehar kalte egingo dieten erabakiak hartzeko behar diren heldutasun garapena eta gaitasun kognitiboak ez dituztela baitakigu. Jokaera hau beraien seme-alabentzako nahi ez duten, baina erakunde eta epaileen mehatxuak direla eta, beraien seme-alaben zaintzaren galera ekiditzeko amore ematera behartuta egon daitezkeen gurasoengatik ere kezkatuta gaude.

Ustezko haurtzaro trans-a detektatzeko hezkuntza protokoloek sexismoa indartu eta gure ardurapean dauden adin txikikoen osasun psikiko, emozional eta fisikoa arriskuan jartzen dutela uste dugu. Horren ondorioz ez dugu hurrengo aukera guretzako onartzen: ume batek bere sexuaren arabera gizariek berarengandik espero ez lituzkeen gustuak erakusten edo ekintzak burutzeko desioa adierazten duenean martxan jartzen den mekanismoan parte hartzea.

Laburbilduz, harreman osasuntsuak sortzeko gai diren hiritar askeen gizarte batean sinisten dugu eta hori lortzeko ikasgeletan eta horietatik kanpo borrokatu eta lan egiten dugu. Gure ikasleak bidezkoagoa eta berdinzaleagoa den gizarte horren parte aktibo bat izatea nahi dugu, non sexuak munduan duten posizioa zehazten edo beraien gaitasunak mugatzen ez duen.